

**ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK.
2020KO UZTAILA**

2020ko uztailean zenbatu dira aurreko urteko uztailean Euskal AEn izandako gaualdien erdiak

Jardueraren bat izan duten establezimenduak 510 izan dira, ekainean baino 138 gehiago, baina 2019ko uztaileko 581 establezimenduen azpitik

Eustaten datuen arabera, 2020ko uztailean 179.843 pertsona sartu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, 340.376 gau igaro dituzte; aurreko urteko hilabete berean, berriz, 328.082 sarrera eta 692.414 gau izan ziren, hau da, 2020ko uztailean 2019koan baino % 45,2 eta % 50,8 gutxiago, hurrenez hurren. Datu horiek agerian uzten dute COVID19aren krisiaren eragina luzatu egin dela Euskal AEko hotelen sektorean.

Halarik ere, joan den ekainaren 21ean alarma-egoera amaitu ondoren, eta kontuan hartuta maiatzaren 9ko Aginduan (SDN/399/2020) ezarritako mugak eta alde aurreko baldintzak hotel eta establezimendu turistikoak publikoarentzat berriz irekitzeko, sektorearen jarduerak gora egiten jarraitu du pixkanaka uztailean.

Testuinguru horretan, Euskal AEan hotel-jardueraren bat izan duten establezimenduak 372 izan ziren ekainean, eta 510, berriz, 2020ko uztailean, 2019ko uztailean izan ziren 581 establezimenduen azpitik oraindik. Hilabete osoan zehar itxita egon diren establezimenduak, aldiz, ekainean 246 izan ziren, eta 2020ko uztailean, berriz, 109; beraz, iazko hilabete berean itxitakoak hirukoiztu egin dira, 33 izan baitziren.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren hotel-establezimenduak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Uztaila	510	109	55	20	192	43	263	46
Ekaina	372	246	46	29	141	94	185	123
Maiatza	188	430	20	55	80	156	88	219
Apirila	56	563	6	69	29	207	21	287
Martzoa	532	87	62	13	206	30	264	44
Uztaila 2019	581	33	68	7	223	11	290	15

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurraldeen arabera, pixkanaka berriro irekitzeko joera orokorra izan da: Araban 2020ko ekainean 46 establezimenduk zuten jarduerarik, eta 2020ko uztailean, berriz, 55ek; Bizkaian, ekainean, 141 establezimenduk zuten jardueraren bat eta, uztailean, 192 establezimenduk; eta, azkenik, Gipuzkoan uztailean 263k eta ekainean 185ek. Nolanahi ere, kopuru horiek 2019ko uztailekoak baino txikiagoak dira; izan ere, orduan 68 establezimendu ziren Araban jardueraren batekin, 223 Bizkaian eta 290 Gipuzkoan.

Krisiaren eragina ez da homogeneoa izan uztailean, aurreko urteko hil beraren aldean, hiru lurraldeetan. Araban % 47,1 murriztu dira sarrerak eta % 51,3 gaualdiak, eta Bizkaian % 58,0 sarrerak eta % 59,2 gaualdiak. Gipuzkoan, aldiz, urte arteko jaitsiera ez da hain nabarmena izan: sarrerak % 29,3 jaitsi dira, eta gaualdiak % 42,0.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia, betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Uztaila

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	2019/07	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
							2020/07	p.p.*	2020/07	p.p.*	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	340.376	-50,8	179.843	-45,2	1,89	2,11	42,0	###	48,3	-32,1	85,9	-22,35	41,5	-53,33
Estatukoak	236.404	-31,8	119.524	-26,7	1,98	2,13	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	103.972	-69,9	60.319	-63,4	1,72	2,10	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	40.275	-51,3	22.285	-47,1	1,81	1,96	36,9	###	44,5	-27,2	68,1	-14,08	30,3	-46,67
Estatukoak	31.907	-39,2	16.809	-33,2	1,90	2,09	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.368	-72,2	5.476	-67,8	1,53	1,77	-	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	27.179	-54,8	14.572	-49,4	1,87	2,09	37,3	###	48,4	-29,4	58,8	-18,00	28,5	-48,99
BIZKAIA	127.211	-59,2	65.028	-58,0	1,96	2,01	36,1	###	43,4	-35,5	70,8	-21,74	30,7	-56,95
Estatukoak	96.783	-40,8	48.065	-39,8	2,01	2,05	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	30.428	-79,5	16.963	-77,4	1,79	1,97	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao	70.856	-62,9	38.279	-60,8	1,85	1,96	34,3	###	40,4	-41,6	73,2	-27,90	29,6	-64,49
GIPUZKOA	172.890	-42,0	92.530	-29,3	1,87	2,28	49,7	###	54,4	-30,7	102,7	-28,00	55,9	-53,95
Estatukoak	107.714	-17,6	54.650	-9,9	1,97	2,25	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	65.176	-61,1	37.880	-48,0	1,72	2,30	-	-	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	105.154	-39,7	55.768	-23,6	1,89	2,39	53,3	###	55,8	-35,0	121,1	-35,96	67,6	-60,63

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2020ko ekaina), hala sarrerak nola gualdiak nabarmen igo dira uztailan: sarrerak 47.669tik 179.843ra eta gualdiak 89.823tik 340.376ra. Hiru lurraldeetan bizkortu da jarduera. Araban 2020ko ekainean zenbatutako 8.151 sarreretatik eta 16.085 gualdietatik 22.285 sarrera eta 40.275 gualdietara igaro dira uztailan. Bizkaian 2020ko ekainean 20.201 sarrera izan ziren, eta uztailan 65.028; gualdiak 38.406 izatetik 127.211 izatera igaro dira. Gipuzkoan, azkenik, uztailako sarrerak eta gualdiak 92.530 eta 172.890 izan dira, hurrenez hurren, eta ekainean 19.317 eta 35.332 izan ziren.

2020ko uztailan, Estatutik etorritako 119.524 bidaiari sartu dira Euskal AE osoan, eta 60.319 atzeritarrak, 2019ko uztailan baino % 26,7 eta % 63,4 gutxiago, hurrenez hurren. Atzerrian bizi direnen sarrerak sarrera guztien % 33,5 dira; 2019ko hilabete berean, berriz, ehuneko hori % 50,3koa zen.

Batez besteko egonaldiaren iraupena 1,89 egunekoa izan da uztailan, 2019ko uztailan izandako batez besteko egonaldiaren 2,11 egunen azpitik. Araban, iazko 1,96 egunetatik aurtengo uztailako 1,81 egunetara jaitsi da; Bizkaian, 2019ko uztailako 2,01 egunetatik 2020ko uztailako 1,96 egunetara; Gipuzkoan, berriz, 2019ko uztailako 2,28 egunetatik iazko uztailako 1,87 egunetara jaitsi da batez besteko egonaldia.

Plazen araberako okupazio-maila portzentajeazko 29,1 puntu jaitsi da Euskal AE osoan, 2019ko uztailan % 71,1 izatetik aurtengo uztailan % 42,0 izatera igaro baita. Lurraldeka, plazen araberako okupazio-mailak % 36,9, % 36,1 eta % 49,7 izan dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, % 24,0, % 32,3 eta % 28,3ko urte arteko jaitsieren ondoren.

Gela eskuragarriaren araberako diru-sarrerak erdira baino gutxiagora jaitsi dira 2020ko uztailan, aurreko urtearekin alderatuta

Sektorearen errentagarritasun-adierazleaz bezainbatean, azkenik, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 85,9 eurokoa izan da 2020ko uztailan, aurreko urtean baino % 22,4 gutxiago. Batez besteko tarifa 68,1 eurokoa da Araban (% 14,1 behera), 70,8 eurokoa Bizkaian (% 21,7ko murrizketa) eta 102,7 eurokoa Gipuzkoan (% 28,0 gutxiago).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak hotel-establezimenduen okupazioaren arabera diren, 41,5 eurokoak izan dira Euskal AEn 2020ko uztailan, 2019ko uztailan baino

% 53,3 gutxiago. Araban 30,3 eurokoak izan dira; Bizkaian, 30,7 eurokoak; Gipuzkoan, 55,9 eurokoak.

351 landa-ostaturik jardun dute 2020ko uztailean; aurreko hilean, berriz, 285 izan ziren

COVID-19aren krisiak **landa-ostaturik** izan duen eragina hoteletan ikusitakoaren antzekoa izan da. Hala, 351 establezimenduk eskaini dute ostaturik uztailean; 2019ko uztailean, berriz, 385 establezimenduk. Berriz, 80 ostaturik itxita jarraitu dute denboraldi osoan, 2019ko uztailean itxita egon ziren 35en aldean.

Hala ere, aurreko hilabetearekin alderatuta (2020ko ekaina), jarduerak nabarmen egin du gora; izan ere, hilabete horretan jarduerarik zuten ostaturik kopurua 285 izan zen, jada aipatutako ekaineko 351 ostaturik aldean. Establezimendu itxiak, era berean, ekainean 143 izatetik uztailean 80 izatera igaro dira.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren landetxeak. COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
2020	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Uztaila	351	80	88	17	103	28	160	37
Ekaina	285	143	68	37	87	42	130	64
Maiatza	167	260	30	75	54	74	83	111
Apirila	31	396	3	102	11	117	17	177
Martzoa	329	99	89	16	94	35	146	48
Uztaila 2019	385	35	96	6	116	11	173	18

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landa-ostaturik sarrerak 14.054 izan dira 2020ko uztailean, ekainean izandako 5.063ak baino askoz gehiago, baina 2019ko uztailean erregistratutakoak baino % 34,5 gutxiago. Gaualdiak, antzera, hirukoiztu egin dira ekainetik uztailera: 14.847 ziren ekainean, eta 44.051 2020ko uztailean. Hala ere, 2019ko uztailearekin alderatuta, % 31,7ko beherakada izan da gaualdien kopuruan.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Uztaila

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	2019/07	2020/07	p.p.*
EUSKAL AE	44.051	-31,7	14.054	-34,5	3,13	3,00	34,8	-11,6
Araba/Álava	7.073	-14,2	2.316	-29,2	3,05	2,52	23,8	-2,4
Bizkaia	12.499	-38,5	3.791	-45,8	3,30	2,90	33,9	-13,9
Gipuzkoa	24.479	-31,8	7.947	-29,1	3,08	3,20	40,7	-14,6

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurraldeen arabera, uztailean Araban 2.316 sarrera eta 7.073 gaualdi izan ziren; Bizkaian 3.791 sarrera eta 12.499 gaualdi; eta, azkenik, Gipuzkoan 7.947 sarrera eta 24.479 gaualdi. Zifra horiek 2019ko uztailean ikusitakoak baino askoz txikiagoak dira, batez ere Bizkaiaren kasuan, nahiz eta agerian uzten duten hiru lurraldeetan jarduera suspertu egin dela.

COVID-19AREN KRISIAK ETHI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko. Gerora hartutako salbuespenezko neurriek zuzeneko eragina izan dute turismo-establezimendu hartzaileen ohiko jardueran. Itxiera ia erabatekoa izan zen, harik eta maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua argitaratu zen arte. Agindu horretan pixkanakako irekiera mugaturako oinarriak ezarri ziren.

Joan den ekainaren 21ean alarma-egoera amaitu ondoren, eta kontuan hartuta maiatzaren 9ko Aginduan (SDN/399/2020) ezarritako mugak eta alde zuzeneko baldintzak hotel eta establezimendu turistikoak publikoarentzat berriz irekitzeko, sektorearen jarduerak gora egiten jarraitu du pixkanaka.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, zabaldu ahal izan da hartutako neurriek sektorean izan duten eragina kuantifikatzeko aukera ematen duen informazio hau.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62